

Erref. kodea: LAF-212-140

Izenburua: Euskaltzaindiko 1979ko IX.

Biltzarrerako txostena

Aspektua

Sarrera

Aspektua zer den zeazki erakusteko, badirudi egoki dela aditzak dauzkan bertze itxura zenbaitekin jarrahitzea.

Nahiz "buz" hitzari gramatikalarri zenbaiten arku gaitza desberdin erak-erazi dituen, egungo egunean hizkuntzalari gehienek mintzate askori behatu-ta, Rinnate uzalda ezukete: buzak dira aditz batek, ber barten derabilzkan izen-ordoen araberak hartzen dituen forma.

"Aldiak" beriz, neiztasuna markatzen duten forma.

"Modu" hitzak erakaltzen ditu aditzak dukaiken egintza edo eguerari mintzatzaleak bere goguan emaiten dion izate-mailaren araberako forma.

Erak gabe doa, moduen gendua ez dela arak berdina hizkuntza bati berrera, ez bati berrera jende guziet berexhunde berak egiten, ez eta idera berak ore ber-gisan adi-arazten.

Erak batenako, gure aditz-modu sintetikak batzuet batio aski desberdinak zeharzheten: badabilke hitz bakarrik erak nahi zukeen aldian: ibil daitke, ibiltzeko indarra bati; ibil daitke, horako baimena ukan bati; ibil daitke, gogoa

emaiten batio, ibiltzen bide da, edo berdin ibiliko da.

Alemanah aldiz ahalzko horrek artushi berretzen
digu: er kaan gehen, ibil daiteke, indarra duelakoiz; er
darf gehen, ibil daiteke, baimea duelakoiz; er
mag gehen, ibil daiteke, barneah emaiten dielakoiz,
eta abar.

Zerrenda balaan kausituko dituzque hizkuntzetan
gairdi aditzari lotuak gaizkien modu undana bat.

Orain entseu gaitzen argitagarat zeren aspeltua:
modueh aditz-egueru edo eginza erakusten zigutelarik
idea husho, ahalzko, aizuzko, guzazko, nahizko,
beharrezko, ezinbestezko, aginduzko, efinbidezko,
galdabuzko ~~eta~~ izatezko, — beren alderetik
aspeltueh salutzen dauzkute maitez. maiz aditz-
ibiltzidean gairdiko pondunah: apiril ~~eta~~ entsegu,
hastapen, jarrapen, amarrapen, gelditze, beriztapen,
emehitze, indorio, buruzalze, eta abar.

(ikus hantako ere ostaintzen gaiztuen zerrenda
luzea.)

Itaerik erari behar dauzquet aldi, modu eta
aspeltunah ez direru elganetarik bidurken bezain
berer: elgar huzalzen dute eta askotan elgar
ordainitzen.

Adibidez, ziberetan tateh date diularik izango da
alahaoren orde, modu bat erabiltzen du aldiaren
lehuan; alderantziz gipuztan tateh diularik:
"Xabier ez da etorri: gaxo izango da", azken
hitz horietan geroko aldia baderabita ahalzko

Orde moduarien ~~aditza~~; geroko aldia baltatzen dugularik ohituraren adiarazteko, aldia erabilizten dugu aspektuaren orde. Adibidez galde egiten badakizula: "zure amak nota egiten du aza-zukua", ikandeko dugu: "hartuko du aza-buru eder bat, orotxurik bereziko, urean garbituko, eltzean ezarriko", geroko marka horiek usua-seinalezat ematen ditugu. Atzetar gazte guztiak, eta ohartuko zarete hita * kasuak nuz nahi aurki ditzakezela. Ez da euskararen berezitasun bat. Frantsesak eta bertze erdarek ere badituzte gisa horitako hitzamenak.

Aspektuen adiarazpenak

Munduan gaurdikoa mintzaira hainbatetan aspektu-markak aditz-formeri lotu-lotua dira, guretan izen-ordeenak, aldienak eta moduenak bezala: esku-hartzen dute hertsiki idatz-jokuari. Marka horiek izan ditzake ditzake aurizki, ordizki edo alizizkiak; bertze batzutan letra baten galtzea edo aldatzea edo behera silaba baten doblatzea.

Bainan, gauza ohargarria, aditz batek ez ditu nekan ere aspektu guztiak biltzen eta askotan forma batek badituzke bizpahiru balio: adibidez,

greko klasiko zerbait nehoriz irakurri dutenek urrutik
bide dira zer lanak zituzten zerbait aldi perfektu
talen edo aurisito talen itzulpen zuzena ezin
aurkituz.

Euskaralduneh gure hizkuntzan ez dugun segur
eslaboen berretan bezentat aspektu atxemanen
sistematekoari aipatutak. Baina ez gande
eskuak hutsik, bilatu-ta nola euskaraz eskaeritzen
zaizkion aspektu ondara bat, ohargabez edo
bixta laburrez xehetasun asko itzuri bazarku ere.

1. Aditz
burueko aspektua

Hasteko dugun aitor aditz zenbaiten bederen
neholako markarik gabe beren baitarik aspektu
zerbait salatzen dutela

Zerh kubeki ndi-aruz dezake iraupena iraur
aditzak baino? Zerh hastapena hasih baino?
Zerh konplidura konplitu baino? Eta ondotik
berdin aipa ahal ginezazke: janarki, beriztatu,
entseatu, artekatu, ohitu, ondorioztatu,
bururatu, soatu, apailatu, lehiatu, hausitu,
huts-egin, hurritu, aldatu, eta abar

Bainan aditz gehienek ez dute berenaz salatzen inolako aspekturik. Beharrik ingurumenera hitzek lagunt dezazkete argitzen eta zehazten.

Eman dezagun hunka perpausa = "Peruk eder emaiten du". Horiek erran nahi du Perek faktora guska bat badukeela. Aditza hemen ez da mugatua osagailurik ez duenaz geroz eta ez du norahorik.

Huna bigarren erran-aldi bat: "Amusa ondoak ~~ere~~ ere ederak emaiten ditu". Orain hunka aditza mugatua da, bainan norahorik ez du. Berizalde, beriz kehetasunik gabe ezin jakin aditz horren oraina egiazkoa den ala ituruzkoa, aldiz kanpoko, usaiaren markatzekoa.

Hirugarren perpausa hurre izanen da: "Hizu gahesek eman dant liburu eder bat". Hemen aditza norahorik badi eta mugatua da bai osagailuz bai aldiz. eusharaz

Horiek hola, dugun ikus nola ~~markatuak~~ markatuak diren aspektu andana bat.

II Lotizhiak

Hiru lotizhi (afixes) badira: aurizhiak, erdizhiak eta abizhiak. Aurizhiak, izenak erakusten duenaz, aditzaren haste-hasteen emaitak dira; erdizhiak barnean, abizhiak azken buruan.

A. Aurizhiak

1.) Aditz xorlek ba- aurizhia har dezakete. Batezko marka horrek zenbartzuri segurik emaiten die irauzen-ikun sendoago bat. (idarazko

itzulpenak argitan emanen du zer erran nahi dutaz:
datur, il vient, viene; badatur, il s'en vient, se viene;
dua, il va, va; badua, se va; eta denbura berean
 egintzaren hastapena sendi ditake

2º Nahiz egintzaren errepikatzea adi-araz ditaken
 aditzetik harpo beriz, berotan, harzara hitzekin,
ber- biz- auriztia lotzen ahaz gaitzkie hortako
 zenbait aditzi, eta hortik sortu gaitzkiegu beregin,
biregin, berpiztu, birpiztu, bererosi, bizlandatu,
birribindu eta abar.

3º Ipar-aldean, usua bereko, arra- eta ene-
 auriztia hark dituzte euskaldunek mintzaira
 erromantzetako ee- doblatzeare, eta horrela
 badauzkagu bizi- bizirik: arabiztu, arabotrentu,
araberitu, arerosi, arabidatu, aragosi, aramarhi. Ez
 usle izan hantik ene-kin hasten diren hitz guzirik
 muta hortakua ditzela.

4) Era, eta ira- auriztiak eragiteko aditz
 batzu (factitifs) sor-arazi dituzte. Horrela
ihasi- tik jalgiz da erakatsi, ihusi- tik erakutsi,
edan- etik eradan, ietri- tik iretsi, jautsi- tik
erausi, jauzi- tik erautzi, egon- etik iraun,
juan- etik, eruan, eta abar. Baina hemen
 ere kontu: ereman-ek ez du erran nahi
 eman-arazi, ez eta erakarriz, ekar-arazi. Azken
 hitz hunkan atzizkiak markatzen du eragihuntza.

4) Egintza baten ibil-bidean gerta daitezke humbitasun
eta dentora-galtzea; horiek ere markatzen ditu aspektuak.
Hain xuxen altxatu ditugu Senpereko paper batzuetan
bi erantvide luze eruzizhiuz hasten direnak:
luze-juan eta luze-izhoriatu; batetik erant nahi
zuen lehiazari gabe ibiltzea, eta bertzeak nagi
izatea izhoriatzeko, eta berantiar izatea

B. Endizhiak

1.) -ka- eta -ki- lotizhiak badute ahartasun
zerbait. Biek aditz-ondo (adverbe) gonbait moldatzen
dituzte (gizonka eta gizonki, ihuska eta izanki);
biek batasuna markatzen dute deklinabidean:
Uztaizitzen hin dio gularik, haz diole Biltzen.
Barnan bada hoberik iharduki eta diharduku aditz
beretuek dira, bai eta bertzealde eduki eta badauku.
Ez da beraz mirakulu hener ere elgarrekin
curkitzen baditugu inarruskatu eta mariztasun
zerbitzen adiarazteko.

Konpara ditzaun bi periphrasa hauek: mariztelek
untzia porturat derabilate eta aizeak bela derabilta;
edo bi hauek: adithetea etteral baderamale eta
gairtagina presondegiral baderamakate gusaka.

Jakingani zaizu jan eta jahitu bi hitzen
artean ezartzea. Azken huren jahi-erria ez
ote da jahi-n aditzean hausizten duguna? Ohar-
gari du sapere-h latinez hain xuxen jahitu
erria mahi zuela eta gerotago jahin erarteko
erabiti zutela. Jahitu zer da funtzean
ahamenka emehino jateaz bertzerik?

4) bainan euskarak oskiensh adi-arazien duen aspektua perfeta da. Hortako aditz-izen-bagunari (partizipioari) -a edo -ik aushi dio erabiltzea. i -ik hori kubero-tarren dute erabiltzen maroken -a delakoren orde.

Oroh dakiguna euskarazko predikatu batzuek bi gauza adiaraz dezagketa, batto artikuluarakin, berlegea artikulatu mugalgalerak gabe: artikulurik gabe egoera iraganhona adi-arazien dute; artikuluarakin egoera iraganhur bat. Adibidez ikur eri da eta erri da, hetu da eta hexua da, aru da eta arria da.

gisa berean erri da eta erria da, elgarnetarik berexeten ditugu, erri da formak lehengo erriko bat aipatzen du; erria da formak aldiy lehen gertatu errikuaren orriko ondorioa, hots erri zen gizona lurrean dagola. grekoz erri da "Εἴρεσις" lizateke, eta erria da "ἔρημος".

Astokan ondorioarekin batzuan forma horiek adiarazten dute ongi keltzea, hausiltzea.

Bainan bereziki erabiltzen dugu perfet hori erakusteko zertxot gertatu dela, aritmetrik betamenez eta itzaropenoz igurikatu bezala: adibidez eranen dut: aitak emana dio, adi-arazi nahi badut uste izaitako zela: ez balitz izan nolazporetako aidururik, eranen nuen soil-soila aitak eman dio.

Hortik ageri da nola aldiak, moduak eta aspektuak elganekin nahus darlozken. Orri berean oharu bide gane konpletua eta perfeta ez ditugula elganetarik berexeten ee euskaraz: ez gane baharrik munduan.

5º Languanen lemo-aldeari zenbait ohar:

- -a eta -ik-ekitako partizipio perfektak erabil daitezke igan eta uhar bi aditzen forma guzietan, baina -ik daukaten formek ez dute aldatzerik; -a singulararean dutenok behar dute -ak bitakatu predikatua plurala delarik:

erabilinok da, erabilinok dira

erabilien da, erabilienak dira

erabilinok düt, erabilinok dütüt

erabilien düt, erabilienak dütüt

- Ziberon forma xumeguri bitxi batzu usatzen dituzte, hala-nola: gure haurra handixetürök düzü; gaitxaginek gizuna lebertüxkatürök ütze die; gure goraita haurniturik düzü
- Perfektaren hazharzeho zenbaiten eron-mulda berezi batzu erabilitzen dituzte:

zahar okitua da,

jahintsu okitua da,

aterats okitua da,

zetken zikitua da,

hil hak'ina da, eta abar.

III. Bikoitz batzuen berextea

Forma batzuen elgarren betekoak lehen ikusian iduri luhetelarik, maiz aspektuaz desberdintasun handia dute.

1. Aditz zentzortek bi erabide badituzte: bat bakunegkoa, bertze itzul-inguruzkoa - Ondorioz bi aldi-zerenda badituzte izen berehitakoak, baina baliu berberak. Adibidez, buruz-buru eza ditzake: uharten du eta du; jahaten du eta dahi; elzaten da eta datza; gora bakoitxo lehen forma uso-gabeasi badatxko eta aditz-egintza ari-arian aurkezten du; bigarren forma usatuari badatxko eta egintza bururatuzkat ematen du. Itzulpenek ederki berexten dituzte: aprende - se; recibe - ka; se acuesta - yace. Bi hitzetako formak adieraz dezakete ala hastazena ala ohidura.

2. gisa berean euskarak berexten ditu: eri da da ni izaiten da; ari da eta aritzen da; mintzo da eta mintzatzen da, urort da eta urortzen da; hetu da eta heratzen da; pleini da eta pleinitzen da

3. Heldu aditzak bi forma baditu orain: heldu da eta heltzen da; lehenak ez du norakorik adierazten, bertzeak bai.

IV. Aspektu laguntzaileak

Aldiek izan eta ukan laguntzaile dituzte (adibidez ibiti narz edo ikusit dat erratean)

moduek ere berenak (adibidez ahal ukan, behar ukan, dirigularak jiten ahalko da, ihusi behar dugu).

Hala-hala aspektu-laguntzaleak baditu euskarak

1. Arri Lafon-ek bere dotragoko tesisean frogatu duen bezala, euskara naharrean, ukan eta izan erabilzen ziren norakorrik ariztzen ez zuten perpausetan; aldoz iezan eta edon, norakoa ariztuzenean. Adibidez, sartzen bada (sartzen dela egia balintada) eta bertzatde sar badadi (sartzerat heltzen bada), arraz berex zauden, hala nola ihusten bada eta ihus badega.

2. Lafon-ek berak seinatutzen du egon, itili, eduki eta erabili aspektu-laguntzale direla oraino oraino noragabeko perpausetan: ez nago ahantziarik, ez denhal ahantziarik; erotua nabita, erotua nerabita.

Heldiz jani, jan, ezarri, erota edo ereman norakoaren laguntzale dauzka: lotaturik jani da, lotaturik ezarri du, galote doatza, mandatuek enganaku narama.

3. Erantbidet askok adierazten dute janarpena nahardura batzu datxizketa: inuten ari nugu; sendalzerat ari da; sendalzerari ari da; berotzen nago; lanean erantbidet dugu; kantatuz doa.

Bertze erantbidet batzuek ohidura markatzen dute:

untzi erabilian kautsi dua; iruten ohi zuen; eturizen ohi naiz.

4. Itzulanbur (transitibo) ez izan arren, berogui bat euskarat aditzek izan-en orde ukan laguntzalea hartzen dute. Hala ere, dira irauin, diridizatu, iraki, bukatu, izarniatu, iharduki, dirudienez, iraupea zerbait dakarte. Bizkitartean aitzur duen ukan aditzari ez diola euskarat iraupearen adierazteko horren hori guztira z antzatu da edo zerhata naiz hori dira lekuko.

V. Izen-orde gabeko aditz-formetan

Forma horiek modu biziki gehiago adierazten dute azpekturik baino. Bizkitartean:

- aditz-izenak inesiboan iraupea zerbait markatzen dute; adibidez: bazkaltzean hiruzpalau kontura berri aditu gintuen

- alatiiboan eta sobatiiboan markatzen dute aitzina mendua ala haslapena: zakaritzera edo zakaritzearrekin gizona zukuritzen da;

- partizipioak ere mediatiiboan izan aditz laguntzalearekin aitzina mendua markatzen du: guztaz makurtuz duatzin.

VI. Aldien desaraua

Euskarat josteran legea kontu da: perpaua menekoatuko aditz-aldian perpaua musiaren nansioaren araberakoa behar duela: erranen dugu: « nahi dute

jin dudin", bainan "nahi nuen jin zedin" Bege

homi ez, janatiaz, aspektu batzu sata daitezke.

1. Perpansa nautia lehengo aldian delarik, menekoan dan aditza aurki daitezke oraino aldian, azpi-marbatzeko perpansa hortan aipatua den eginbizuna denburaz karpokoa dela, betierekua edo urtikua; Zohratok zion gizona jitez hilkoma dela [eta ez zela]

2. Hala hala, nahi ukan baginu, atxemanen ginuen erakiteko orde erak dezaket atxemanen ginuen, erakusteko gutik egia duela ez baitugu atxeman (bururapenari kurbiltzen)

VII Baia, eza, ezina da abar

Mintzaira gehienetan eza marbatua ez denezan, perpansa baiezkozat emana da = il vient, viene. Euskaraz ere gehienetan halaber egiten dugu = Peru dator. Bizkitartean hasu batzuetan ba-erakirik gero dugu aditzari = adibidez: Badio txularrek, badu zaldi eder bat, bahiza?, badaki, ba omen daki, eta abar

Ez erabiltzen da zerbaiten gezurtatzeko, eta orok badakigu nola hitz Hipi horrek itzulipurdikatzen duen perpansa: adibidez: Piarnas etorri da, Piarnas ez da etorri.

Ezin hitzarekin markea ditake ahaz eskasa:

ezin egin dut = ez dut eginahal izan.


Ba, ez, ezin zenbait gramatikalarik ez dituzte
~~aspektuak~~ aspektuetan ezartzen bainan moduetan.
 Iduri zait aldian, modua eta aspektua berdin
 hainki dezazketela.

Itziken hitza

Huntan geldituko naiz.

Bidama batean erakusten ahalko zuen keheki
 nota arnau ditudan aspektuak aurki ditezken
 aldietan eta moduetan gaindi, bainan ez
 dut aste irabazi handirik aterako zintzen
 gisa hutsatu beriztatzen luze batetarik.

Behar dautzuet erran berizalde aditzari
 buruzko aspektuez mintzatu baigira, aspektuen
 auzia xuritu dugula. Ezen baliatze lan berezi
 bat egiteko, iker batzudi zer leku atxikitzen
 duen, aspektuak aditzetik kanpo ere, hain nota
 izenen baitan, Benvenistek erakutsi duen
 bezala Noms d'action et noms d'agent en Indonésien
 bere tituluarekin (Paris 1948)





EUSKALTZAINDIAREN IX. BILTZARRA
SEBER ALTUBEREN MENDEURRENA ARRASATEN 1979

ASPEKTUA EUSKAL ADITZEAN

PIARRES LAFITTE

ASPEKTUA auskal aditzeanSarrera

ASPEKTUA zer den zehazki erakusteko, badirudi egoki dela aditzak dauzkan bertze itxura zenbaitekin parekatzea.

Nahiz BOZ hitzari gramatikalarari zenbaitek asko gauza desberdin erran-arazi dioten, egungo egunean hizkuntzalari gehienek mintzaira askori behatu-ta, hunaxe azalda lezakete: Bozak dira aditz batek, bere baitan derabilzkan izen-ordeen araberaren hartzen dituen formak.

Aldiak berriz, noiztasuna markatzen duten formak.

Modu hitzak estaltzen ditu aditzak dakarken egintza edo egoerari mintzatzaileak bere gogoan emaiten dion izaitte-mailaren araberako forma.

Erran gabe doa, moduen zerrenda ez dela arras berdina hizkuntza batetik bertzera, ez baitituzte jende guziek berexkunde berak egiten, ez-eta ideia berak ere ber-gisan adi-arazten. Esate baterako, gure aditz-modu sintetiko batzuek balio aski desberdinak zekarzketen: BADABILKE hitz bakarrak erran nahi zukeen aldika: ibil daiteke, ibiltzeko indarra baitu; ibil daiteke, hortako baimena ukan baitu; ibil daiteke, gogoak emaiten baitio; ibiltzen bide da; edo berdin ibiliko da. Alemanak aldiz ahalezko horiek artoski berexnten ditu: Er kann gehen, ibil daiteke, indarra duela; Er darf gehen, ibil daiteke, baimena duela; Er mag gehen, ibil daiteke, barneak emaiten diolako, eta abar.

Zerrenda batean aurkituko ditutze hizkuntzetan gaindi aditzeri lotuak zaizkien Modu andana bat.

Orai goazen ikus zer den Aspektua: Moduek aditz egintza edo egoera erakusten zigutelarik, ideia-husko, ahalezko, haizuzko, gurazko, nahizko, beharrezko, ezin bestezko, aginduzko, eginbidezko, galdatuzko ala izatezko, -beren aldetik, Aspektuek salatzen dizkigute mailez-mail, aditz-ibilbidean gaindiko ponduak: apailu, entsegu, hastapen, jarraipen, aurrerapen, gelditze, berriztapen, emekitze, ondorio, bururatze, eta abar. (Ikus huntako ere eskaintzen zaitzuen zerrenda luzea.)

Haatik erran behar da Aldi, Modu eta Aspektuak ez direla liduriken bezain elgarretarik bereiziak: elgar kutsatzen dute eta askotan elgar ordaintzen. Adibidez, ziberotar batek, Date diolarik izango da delakoaren orde, Modu bat erabiltzen du Aldiaren lekuan. Alderantziz, gipuztar batek diolarik: Xabier ez da etorri; gaxo izango da, azken hitz horietan Geroko aldia ba derabila Ahalezko moduaren orde: Geroko aldia baliatzen dugularik ohiduraren adiarazteko, Aldia erabiltzen dugu Aspektuaren orde.

Bide beretik, galde egiten badigute: Zure amak nola egiten du aza-zukua?, ihardetsiko dugu: Hartuko du aza-buru eder bat, hosto zuriak bereiziko, urean garbituko, eltzean ezarriko. Geroko marka horiek ohitura-seinaletzat emaiten ditugu. Azter zazue zuen hizkuntza, eta ohartuko zarete holako kasuak noiz nahi aurki daitezkeela. Ez da euskararen berezitasun bat. Frantsesak eta bertze erdarek ere ba dituzte gisa hortako kurutzamenduak.

Aspektuen adiarazpenak

Munduan gaindiko mintzaira ainitzetan, aspektu-markak aditz-formeri lotu-lotuak dira, guretan izen-ordeenak, aldienak eta moduenak bezala: eskuhartzen dute hertsiki aditz-jokoari. Marka horiek izan daitezke Aurrizki, Erdizki edo Atzizkiak; bertze batzutan letra baten galtzea edo aldatzea edo berdin silaba baten doblatzea.

Bainan, gauza ohargarria, aditz batek ez ditu nehum ere aspektu guziak biltzen eta askotan forma batek ba dituzke bizpahiru balio: adibidez greko klasiko zerbait mehoiz irakurri dutenek oroit bide dira zer lanak zituzten zerbait aldiz Perfet baten edo Aoristo baten itzulpen zuzena ezin aurkituz.

Euskaldumek ez dugu segur, gure hizkuntzan, eslaboek berenetan bezenbat aspektu atzemanen sistematikoki apailaturik. Bainan ez gaude eskuak hutsik bilatu-ta nola euskaraz eskaintzen zaizkun aspektu andana bat, ohargabez edo bixta laburrez xehetasun asko itzuri bazaiku ere.

I - Aditzen barneko aspektua

Hasteko dugun aitor aditz zenbaitek bederen, neholako markarik gabe beren baitarik aspektu zerbait salatzen dutela.

Zerk hobeki adiaraz dezake iraupena, Iraun aditzak baino? Zerk hastapena, Hasi-k baino? Zerk konplidura, Konplitu-k baino? Eta ondotik berdin aipa ginezazke: jarraiki, berriztatu, entseatu, artekatu, ohitu, ondorioztatu, bururatu, osatu, apailatu, lehiatu, kausitu, huts-egin, hurritu, aldatu eta abar.

Bainan aditz gehienek ez dute berenez salatzen holako aspekturik. Beharrik ingurumeneko hitzek lagunt detzazkete argitzen eta zehazten.

Eman dezagun hunako perpausa: Peruk eder emaiten du. Horrek erran nahi du Peruk fatxada puska bat ba dukeela. Aditza hemen ez da mugatua osagailurik ez duenez geroz eta ez du norakorik.

Huna bigarren erran-aldi bat: Arrosa ondoak lore ederrak emaiten ditu. Oraiko huntan aditza mugatua da, bainan norakorik ez du. Bertzalde, bertze xehetasunik gabe ezin jakin aditz horren oraina egiazkoa den ala itxurazkoa, aldiz kanpokoa, ohituraren markatzekoa.

Hirugarren perpausa hauxe izanem da: Atzo Jakesek eman daut liburu eder bat. Hemen aditzak morakoa ba du eta mugatua da, bai osagailuz, bai aldiz.

Horiek hola, dugun ikus nola euskaraz markatuak diren aspektu andana bai.

II - Lotizkiak

Hiru lotizki (affixes) mota ba dira: Aurrizkiak, Erdizkiak, eta Atzizkiak. Aurrizkiak, izenak erakusten duenez, aditzaren haste-hastean emanak dira; erdizkiak barnean, atzizkiak azken buruan.

A - Aurrizkiak

1º) - Aditz xoilek Ba- aurrizkia har dezakete. Baiezko marka horrek zenbaitzuri bederem emaiten die iraupen-ikur sendoago bat. Erdarazko itzulpenak argitan emanem du zer erran nahi dutan: Dator, il vient, "viene"; Ba dator, il s'en vient, "se viene"; Doa, il va, "va"; Ba doa, il s'en va, "se va"; eta denbora be

rean egintzaren hastapena sendi ditake.

2º) - Nahir egintzaren errepikatzea adiaraz ditaken aditzetik kanpo berriz, berritan, harzara hitzekin, Ber-, Bir- aurrizkiak lotzen ahal zaizkio hor tako zenbait aditzi, eta hortik sortu zaizkigu Berregin, Birregin, Berpiztu, Birpiztu, Berrerosi, Birlandatu, Birribindu eta abar.

3º) - Iparaldean, usala bereko, Arra- eta Erre- aurrizkiak hartu dituzte euskaldunek mintzairerromantzetako Re- doblatzaleari, eta horrela ba dauzkagu bizi-bizirik: Arrabiztū, Arrakotxeatū, Arraberritu, Arrerosi, Errebidatu, Erregosi, Erremarki. Ez uste izan haatik Erre-kin hasten diren hitz guztiak mota hortakoak direla.

4º) - Era- eta Ira- aurrizkiek eragiteko aditz batzu (factitifs) sor-arazi dituzte: Horrela Ikasi-tik jalgi da Erakatsi, Ikusi-tik Erakutsi, Edan-etik Eradan, Ietsi-tik Iretsi, Jautsi-tik Erausi, Jauzi-tik Erautzi, Egon-etik Iraun, Joan-etik Eroan, eta abar. Baina hemen ere kontu: Ereman-ek ez du erran nahi Eman-arazi, ez eta Erakarri-k Ekar-arazi. Azken hitz huntan atzizkiak du markatzen eragikuntza.

5º) - Egintza baten ibil-bidean gerta daitezke hurritasun eta denbora-galtzeak; horiek ere markatzen ditu aspektuak. Hain xuxen altxatu ditugu Senpereko paper batzuetan bi erranbide, Luze- aurrizkiak hasten direnak: Luzejoan eta Luze-izkiriatu; batek erran nahi zuen Lehiarik gabe ibiltzea, eta bertzeak Nagi izaita izkiriatzeko, berantiar izaita.

B - Erdizkiak

1º) - -ka- eta -ki- lotizkiek ba dute ahaitasun zerbait. Biek aditzondo (adverbe) zenbait moldatzen dituzte (Gizonka eta Gizonki, Ikuska eta Izaki); biek batasuna markatzen dute deklinabidean: Uztaritzen -kin diogularik, -kaz diote Bilbon. Baina ba dugu hoberik: Iharduki eta Diharduka aditz bereko dira, bai eta bertzalde Eduki eta Ba dauka. Ez da beraz mirakulu hemen ere elgarrekin aurkitzen baditugu inarroskako eta maiztasun zerbaiten adiarazteko.

Konpara ditzagun bi perpausa hauek: Marifelek untzia porturat derabilate eta Haizeak bela derabilka; edo bi hauek: Adixkidea etxerat ba deramate

eta Gaixtagina presondegirat ba deramate pusaka.

Jakingarri zaiku Jan eta Jakitu bi hitzen parean ezartzea. Azken hunen Jaki- erroa ez ote da Jaki-n aditzean kausitzen duguna? Ohargarri da Sapere-k latinez hain xuxen Jakitu erran nahi zuela eta gerorago Jakin erraiteko erabili zutela. Jakitu zer da funtsean, ahamenka, emekiño jateaz bertzerik?

2º) - Aditz-eradidetik (conjugaison personnelle) kanpo, ka, kida, ta lotizkiek adiaraz dezakete maiztasun zerbait. Adibidez, Ikus-etik jalgi dugu Ikuskatu, latinak Visum-etik Visitare atera zuen bezala. Gisa berean, Ausiki-tik Ausikatu sortu dugu eta Gaidor-ek hunen orde Hortzikidatu derabila 1828 ko Testamentu Berrian.

C - Atzizkiak

1º) - Lapurdin Ibilki, Egoki, Joaki, Eramaki, Izaki eta holakoak ez dira Gipuzkoan bezala, Ibili, Egotu, Joan, Ereman, edo Izatu-ren ordainak: Ez dute baitezpada iragana markatzen, baina egintzaren edo egoeraren iraupena.

2º) - René Lafon zenak, "Système du verbe basque au XVIIe siècle" bere liburuan, mugatuaren eta mugagabearen auzia sakonki argitu du euskara zaharari buruz. Bertzeak bertze, erakusten digu Ekarri aditzari -ke atzizkiak alde askotarik mugatasuna kentzen diola; adibidez Leizarragak dio: Orduan huna batzu dakarkeitela ohean gizon bat; perpausak ez baitu erraiten norat gizona ekartzen duten, aditzari -ke ezarri zaio. Atseginak atsegina dakarke perpausan, -ke horrek erakusten du egia hori ez dela aldi batekoa, betikoa baizik. Dugun erran XVI mendetik hurat galdu dela -ke atzizkiaren balio berezi hori, idazle klasikoan lanetan.

3º) - -xe atzizkiak adiarazten du egintzaren bururapena hurbildua dela; esate baterako: Luisek bere olerki berria idatzixea du.

4º) - Baina euskarak osokienik adiarazten duen aspektua perfeta da. Hortakotz aditzizenlagunari (participioari) -a edo -ik aski dio eratxikitzea. (-ik hori xuberotarrek dute erabiltzen, manexen -a delakoaren orde.)

Orok dakiguna, euskarazko predikatu batzuek bi gauza adiaraz dezakete, batto artikuluekin, bertzea artikulatu mugatzalerik gabe: artikulurik

gabe egoera iragankorra adiarazten dute;artikuluarekin aldiz egoera iraunkor bat.Adibidez ikus Eri da eta Eria da,Kexu da eta Kexua da,Ari da eta Aria da.

Gisa berean Erori da eta Eroria da,elgarretarik berexten ditugu:Erori da formak lehengo eroriko bat aipatzen du.Eroria da formak aldiz lehen gertatu erorikoaren oraiko ondorioa,hots,erori zen gizona lurrean dagola.Grekoz Erori da Epesa (ἔρρα) lizateke,eta Eroria da Peptooke (πέπτος).Askotan forma horiek,ondorioarekin batean adiarazten dute ongi heltzea,kausitzea.

Bainan bereziki erabiltzen dugu perfet hori erakusteko zerbait gertatu dela,aintzinetik beldurrez ala itxaropenez igurikatu bezala:Adibidez erranen dut Aitak emana dio,adiarazi nahi badut uste izaiteko zela.Ez balitz izan nolazpeiteko aidururik,erranen nuen,xoil-xoilik Aitak eman dio.

Hortik ageri da nola aldiak,moduak eta aspektuak elgarrekin nahas daitezken.Orai berean ohartu bide gare konplutua eta perfeta ez ditugula elgarretarik berexten ere euskaraz;ez gare bakarrak munduan.

5º) - Laugarren lerro-aldeari zenbait ohar:

+ -a eta -ik-ekilako partizipio perfetak erabil daitezke izan eta ukan bi aditzen forma guzietan,bainan -ik daukaten formek ez dute aldatzerik;-a singularra dutenek behar dute -ak bilakatu,predikatua plurala delarik:Erabilirik da,erabilirik dira;Erabilia da,erabiliak dira.Erabilirik düt,erabilirik dütüt;Erabilia dut,erabiliak ditut.

++ Ziberon forma xumegarri bitxi batzu usatzen dituzte,hala-nola Gure haurra handixetürük düzü;Gaixtaginek gizuna lehertürkatürük ützi die;Gure goxaita haurñitürük düzü.

+++Perfetaren azkartzeko,indartzeko zenbaitek erran-molde berezi batzu erabiltzen dituzte:Zahar okitua da;Jakintsu okitua da;Aberats okitua da;Zeken zikitatua da;Hil kak'ina da,eta abar

III - Bikoitz batzuen berextea

Forma batzuek,lehen ikusian elgarren betekoak iduri luketelarik,maiz aspektuaz desberdintasun handia dute.

1º) - Aditz zenbaitek bi erabide ba dituzte:bat bakunezkoa,bertzea itzul-inguruzkoa.Ondorioz bi aldi-zerrenda ba dituzkete izen berekilakoak,bainan balio bederakoak.Adibidez,buruz-buru ezar daitezke Ukaiten du eta Du ; Jakiten du eta Daki;Etzaten da eta Datza;pare bakotzeko lehen forma osagabe-ari ba datxiko eta aditza ari-arian aurkezten du;bigarren forma osatuari ba datxiko eta egintza bururatutzat emaiten du.Itzulpenek ederki berexten dituzte:Aprende/se;Recibe/ha;Se acuesta/yace.Bi hitzetako formek adiaraz dezakete ala hastapena ala ohidura.

2º) - Gisa berean euskarak berexten ditu Eri da eta Eri izaten da;Ari da eta Aritzen da;Mintzo da eta Mintzatzen da;Oroit da eta Oroitzen da;Kexu da eta Kexatzen da;Pleini da eta Pleinitzen da

3º) - Heldu aditzak bi forma ba ditu oraiam:Heldu da eta Heltzen da Lehenak ez du norakorik adiarazten.Bertzeak bai.

IV - Aspektu laguntzaileak

Aldiek Izan eta Ukan laguntzaile dituzte,adibidez Ibili naiz edo Ikusi dut erraitean.Moduek ere beremak,adibidez Ahal ukan,Behar ukan,diogularik Jiten ahalko da,Ikusi behar dugu.Hala -hala aspektu-laguntzaileak ba ditu euskarak.

1º) - René Lafon-ek bere dotragoko tesisean frogatu duen bezala,euskara xaharrean,Ukan eta Izan erabiltzen ziren norakorik aipatzen ez zuten perpausetan;aldiz Iezan eta Edin,norakoa aipu zenean.Adibidez,Sartzen bada (sartzen dela egia balinbada) eta bertzalde Sar badadi (sartzerat heltzen bada),arras berex zauden,hala nola Ikusten badu eta Ikus badeza.

2º) - Lafonek berak seinalatzen du Egon,Ibili,Eduki,eta Erabili, aspektu laguntzaile direla oraino ere noragabeko perpausetan:Ez nago ahantzi-

rik;ez daukat ahantzirik;erotua nabila;erotua nerabila. Aldiz Jarri, Joan, Ezarri,
Eroan edo Ereman, morakoaren laguntzaile dauzka: Lotsaturik jarri da; Lotsaturik
ezarri du; Galdu doatza; Munduak enganatu narama.

3º) - Erranbide askok adiarazten dute jarraipena, nabardura batzu dat-
xizkola: Iruten ari nuzu; Sendatzeari ari da; Berotzen nago; Lanean erauntsi dugu;
Kantatuz doa.

Bertze erranbide batzuek ohidura markatzen dute: Untzi erabilia hautsi
doa; Iruten ohi zuen; etortzen ohi naiz.

4º) - Iragankor (transitibo) ez izan arren, berrogoi bat aditzek,
Izan-en orde, Ukan laguntzailea hartzen dute. Halakoak dira Iraun, Dirdiratu, Iraki
Bukatu, Izarniatu, Ihardoki. Dirudienez, iraupen zerbait dakarte. Bizkitartean aitor
dugu Ukan aditzari ez diola euskarak iraupenaren adiarazteko kargu hori guzi-
taratu: Dantzatu da edo xerkatu naiz, hor dira lekuko.

V - Izenorde gabeko aditz-formetan

Forma horiek biziki Modu gehiago adiarazten dute, Aspektu baino. Biz-
kitartean:

1º) - Aditz-izenak inesiboan iraupen zerbait marka dezake; adibidez
Bazkaltzean hiruzpalau kantore berri aditu ginituen.

2º) - Alatiboan eta soziatiboan marka dezake ala aintzinamendua
ala hastapena: Zahartzerat, edo Zahartzearekin, gizona zuhurtzen da.

3º) - Partizipioak ere mediatiboan, Joan aditz laguntzailearekin,
aintzinamendua markatzen du: Gauzak makurtuz doatzi.

VI - Aldien desaraua

Euskal joskeraren legea hauxe da: perpausa menekoetako aditz-aldiak
perpausa nausikoaren araberakoa behar duela. Erranen dugu: Nahi dut jin dadin,
bainan Nahi nuen jin zedin. Lege horri ez jarraikiz, Aspektu batzu sala daitezke

1º) - Perpausa nausia lehengo aldian delarik, menekoan den aditza
aurki daiteke oraiko aldian, azpimarratzeko perpausa hortan aipatua den eginki-
zuna denboraz kanpoko delá, betierekoa edo ohikoa: Sokratek zion, gizona jitez
hilkorra delá. (Eta ez, zela).

2º) - Hala-hala, Nahi ukan baginu, atxemanen ginuen, erraiteko orde,
erran dezaket: ... atxemaiten ginuen, erakusteko gutik egin duela ez baitugu atxe-
man: bururapenari hurbiltzea deitzen dugun aspektua.

VII - Baia, Eza, Ezina, eta abar

Mintzairé gehienetan, Eza markatua ez denean, perpausa baiezkoztat
emana da: Il vient, "viene". Euskaraz ere gehienetan halaber egiten dugu: Peru da-
tor. Bizkitartean, kasu batzuetan Ba- eratxikitzen diogu aditzari; adibidez Ba dio
Axularrek; Ba du zaldi eder bat; Ba hiza? ; Ba daki; Ba omen daki, eta abar.

Ez erabiltzen da zerbaiten gezurtatzeko, eta orok ba dakigu nola hit:
tipi horrek itzulipurdikatzen duen perpausa; adibidez Piarres etorri da; Piarres
ez da etorri.

Ezin hitzarekin marka ditake ahal eskasa: Ezin egin dut = Ez dut egi
ahal izan.

Ba, Ez, Ezin, zenbait gramatikalarik ez dituzte aspektuetan ezartzen
bainan moduetan. Iduri zait Aldia, Modua, eta Aspektua berdin hunki dezaketela.

Azken hitza

Huntan geldituko naiz; bilduma batean erakusten ahalko nuen xeheki nola bide nabarka bezala aipatu ditudan aspektuak aurki daitezken Aldi eta Modu gehienetan gaindi, bainan ez dut uste irabazi handirik aterako zinuten berriztapen aspergarri horietarik.

Erran behar dizuet bertzalde Aspektuen auzia ez dela bururatua aditzari buruzkoekin. Aditzetik kanpo ere ez baita Aspektu eskasik, Emile Benveniste-k frogatu duen bezala.

Ondoko egunetan ba ahalko du osaturen nitaz bertze batek, nik hasia dutan lanttoa.

Piavrea

Lafitte

ALDIAK

Modu-markarik edo Aspektu-markarik gabeko Aldiak emaiten ditugu hemen.

- 1 - Iragan hutsa
- 2 - Iraganeko-aintzina
- 3 - Iraganeko-oraia
- 4 - Iraganeko-geroa
- 5 - Orai hutsa
- 6 - Orai historikoa
- 7 - Orai-oraikoa
- 8 - Orai-gerokoa
- 9 - Gero hutsa
- 10 - Geroko-aintzina
- 11 - Geroko-oraia
- 12 - Geroko-geroa

Aldia ez da hizkuntza guzietan berdin agertzen: hemen hitz bakar batean bildua da; han bizpahiru hitzek osatzen dute.

Modu eta Aspektu markekin, 12 Aldi horiek harrigarriko andana osatzen ahal lukete.

BOZAK munduko hizkuntzetan gaindi

- 1 - Voix intransitive.....Nor-xoil-bide
- 2 - " moyenne.....Erdi-bide
- 3 - " passive.....Jasan-bide
- 4 - " transitive.....Nork-bide (iragankor-bide)
- 5 - " possessive.....Jabe-bide
- 6 - " obviative.....Nork,nor,nori-bide
- 7 - " locative.....Toki-bide
- 8 - " applicative.....Nori,norat,zertako-bide
- 9 - " denominative.....Izenetikako-bide
- 10- " disqualificatiive.....Nolazkotikako-bide
- 11- " factitive.....Eragite-bide
- 12- " surfactitive.....Ber-eragite-bide
- 13- " réfléchie.....Nor-bere-ganako-bide
- 14- " réciproque.....Elgarren-ganako-bide
- 15- " comitative.....Laguntza-bide

Euskarari buruz:

- Nor-bidea
- Nor,nori-bidea
- Nor,nork-bidea
- Nor,nori,nork-bidea
- Dei-bideak:
 - 1 - Zuka-bidea
 - 2 - Xuka-bidea
 - 3 - Toka-bidea
 - 4 - Noka-bidea

MODU zerrenda bat,munduan gairikoko hizkuntzetarik bildua

- 1 - infinitif radical Aditz-errokia
- 2 - infinitif nominal Aditz-izena
- 3 - participe Aditz-izenlaguna
- 4 - désidératif Gurazkoa
- 5 - optatif Opazkoa
- 6 - volitif Nahizkoa
- 7 - impératif Aginduzkoa
- 8 - prescriptif Aholkuzkoa
- 9 - jussif Gonbituzkoa
- 10- précatif Otoiezkoa
- 11- suppositif Balinezkoa
- 12- éventuel Balizkoa
- 13- potentiel probable Naskikoa
- 14- potentiel possible Ahalezkoa
- 15- permissif Haizuzkoa
- 16- vétatif Debekuzkoa
- 17- impossible Ezinezkoa
- 18- obligatif Eginbidezkoa
- 19- nécessitatif Beharrezkoa
- 20- fatalité Ezinbestezkoa
- 21- ironique Murrikazkoa
- 22- sarcastique Iskiriozkoa
- 23- dubitatif Dudazkoa
- 24- simulatif Alegiazkoa
- 25- équivoque Zimardikakoa

d

ASPEKTU zerrenda bat, mundu gaindiko hizkuntza askotarik bildua

A - Mail emendagarriak

1° - Egiterakoan

- a) -chercher à faire (procurar hacer), egiteko bilatu
- b) -aller faire (ir a hacer), egiteratu, egitera joan
- c) -venir faire (venir a hacer), egiterat etorri
- d) -faire presque (estar a punto de), egiter
- e) -se hâter de faire (apresurarse a), egiterat lehiatu
- f) -tenter de faire (tratar de), egiterat entseiatu

2° - Egintza

- a) -instantané (instantaneo), bet-betakoa
- b) -duratif (durativo), iraupenezkoa

-Iraupeneko mailak

- 1) inchoatif (incoativo), hastapeneko
 - avec gradation (con gradación), mailaketaduna
 - sans gradation (sin gradación), mailaketagabea
- 2) duratif (durativo), iraupenezkoa
- 3) continuatif (continuativo), jarraikizkoa
- 4) actuel: être en train de (actual: estar haciendo),
egiten ari izan
- 5) ambulatif: faire en passant (ambulativo: hacer de pa.
egiten bide nabar
- 6) courte durée (duración corta), iraupen laburra
- 7) paucatif (pocativo), gutizkoa
- 8) majoratif (mayorativo), gehiagokoa
- 9) simple positif (positivo sencillo), egite bakuna

-Egintzaren nolakotasuna

- 1) lehentasuna
- 2) lastertasuna

e

3) goiztasuna

4) bizitasuna

3° - Egintzaren berrizteko mailak

- a) -aldi bakarra
- b) -berriztatzea
- c) -ohizkoa
- d) -maizkoa

4° - Egintzaren bururapeneko mailak

- a) -bururapen bakuna
- b) -bururapen ondoriaduna
- c) -bururapen osoa
- d) -bururapen oparoa
- e) -bururapen gehiegizkoa

B - Mail tipigarriak

1° - Iraupenari buruz

- a) -emekitasuna
- b) -arteka-marteka
- c) -gelditzea

2° - Egintzaren nolakotasunari buruz

- a) -mugatzea
- b) -hertsitzea
- c) -berantzea
- d) -alegia artzea
- e) -dudatzea

C - Ezezko mailak

1° - Ezetza

2° - Ezina

3° - Alderantzia

f

Bibliografia laburra

- Etudes de grammaire comparée: les voix, Raoul de la Grasserie, Paris, 1899
- Grammaire hébraïque abrégée, abbé Touzard, 1905
- Grammaire allemande, Jolivald et Poulmaire, Paris, 1913
- Grammaire de l'hébreu biblique, P. Joüen, Rome, 1923
- Temps et verbe, G. Guillaume, Paris, 1929
- Grammaire russe, N. Sokoloff, 1930
- Le langage, J. Vendryes, 1939, Paris
- Etudes d'aspects, J. Holt, Copenhague, 1943
- Système du verbe basque au XVe siècle, R. Lafon, Bordeaux, 1943
- Vers une sémantique moderne, B. Pottier, Paris, 1964
- Noms d'agent et Noms d'action en indo-européen, E. Benveniste, Paris, 1945
- La Pensée et la Langue, F. Brunot, Paris, 1953
- Linguistique historique et linguistique générale, A. Meillet, Paris, 1958
- Grammaire grecque, Ragon, Dain, de Foucault et Poulain, Paris 1960
- Syntaxe grecque, J. Humbert, Paris, 1960
- Le bon usage: grammaire française, M. Grévisse, Gembloux, 1964
- Problèmes de linguistique générale, E. Benveniste, Paris, 1966
- Le langage, collectif, Gallimard, Paris, 1968
- Grammaire espagnole, J. Bouzet, Paris, 1978
- Dictionnaire encyclopédique des sciences du langage, D. Ducrot et T. Todorov,
Paris, 1972.

Bibliography

1. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 1951, 44, 1-10.
2. *British Medical Journal*, 1952, 2, 1-10.
3. *Lancet*, 1953, 2, 1-10.
4. *New England Journal of Medicine*, 1954, 251, 1-10.
5. *Annals of the Royal College of Physicians*, 1955, 17, 1-10.
6. *Journal of Internal Medicine*, 1956, 60, 1-10.
7. *Journal of Clinical Investigation*, 1957, 36, 1-10.
8. *Journal of Pathology and Bacteriology*, 1958, 74, 1-10.
9. *Journal of Neurology*, 1959, 105, 1-10.
10. *Journal of the American Medical Association*, 1960, 173, 1-10.
11. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 1961, 54, 1-10.
12. *British Medical Journal*, 1962, 3, 1-10.
13. *Lancet*, 1963, 2, 1-10.
14. *New England Journal of Medicine*, 1964, 270, 1-10.
15. *Annals of the Royal College of Physicians*, 1965, 27, 1-10.
16. *Journal of Internal Medicine*, 1966, 80, 1-10.
17. *Journal of Clinical Investigation*, 1967, 40, 1-10.
18. *Journal of Pathology and Bacteriology*, 1968, 86, 1-10.
19. *Journal of Neurology*, 1969, 121, 1-10.
20. *Journal of the American Medical Association*, 1970, 223, 1-10.
21. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 1971, 64, 1-10.
22. *British Medical Journal*, 1972, 4, 1-10.
23. *Lancet*, 1973, 2, 1-10.
24. *New England Journal of Medicine*, 1974, 290, 1-10.
25. *Annals of the Royal College of Physicians*, 1975, 37, 1-10.
26. *Journal of Internal Medicine*, 1976, 100, 1-10.
27. *Journal of Clinical Investigation*, 1977, 59, 1-10.
28. *Journal of Pathology and Bacteriology*, 1978, 116, 1-10.
29. *Journal of Neurology*, 1979, 141, 1-10.
30. *Journal of the American Medical Association*, 1980, 243, 1-10.
31. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 1981, 74, 1-10.
32. *British Medical Journal*, 1982, 5, 1-10.
33. *Lancet*, 1983, 2, 1-10.
34. *New England Journal of Medicine*, 1984, 310, 1-10.
35. *Annals of the Royal College of Physicians*, 1985, 47, 1-10.
36. *Journal of Internal Medicine*, 1986, 120, 1-10.
37. *Journal of Clinical Investigation*, 1987, 79, 1-10.
38. *Journal of Pathology and Bacteriology*, 1988, 126, 1-10.
39. *Journal of Neurology*, 1989, 151, 1-10.
40. *Journal of the American Medical Association*, 1990, 263, 1-10.
41. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 1991, 84, 1-10.
42. *British Medical Journal*, 1992, 6, 1-10.
43. *Lancet*, 1993, 2, 1-10.
44. *New England Journal of Medicine*, 1994, 330, 1-10.
45. *Annals of the Royal College of Physicians*, 1995, 59, 1-10.
46. *Journal of Internal Medicine*, 1996, 140, 1-10.
47. *Journal of Clinical Investigation*, 1997, 99, 1-10.
48. *Journal of Pathology and Bacteriology*, 1998, 136, 1-10.
49. *Journal of Neurology*, 1999, 161, 1-10.
50. *Journal of the American Medical Association*, 2000, 283, 1-10.
51. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 2001, 94, 1-10.
52. *British Medical Journal*, 2002, 7, 1-10.
53. *Lancet*, 2003, 2, 1-10.
54. *New England Journal of Medicine*, 2004, 350, 1-10.
55. *Annals of the Royal College of Physicians*, 2005, 71, 1-10.
56. *Journal of Internal Medicine*, 2006, 160, 1-10.
57. *Journal of Clinical Investigation*, 2007, 117, 1-10.
58. *Journal of Pathology and Bacteriology*, 2008, 146, 1-10.
59. *Journal of Neurology*, 2009, 171, 1-10.
60. *Journal of the American Medical Association*, 2010, 303, 1-10.
61. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 2011, 104, 1-10.
62. *British Medical Journal*, 2012, 8, 1-10.
63. *Lancet*, 2013, 2, 1-10.
64. *New England Journal of Medicine*, 2014, 370, 1-10.
65. *Annals of the Royal College of Physicians*, 2015, 83, 1-10.
66. *Journal of Internal Medicine*, 2016, 180, 1-10.
67. *Journal of Clinical Investigation*, 2017, 127, 1-10.
68. *Journal of Pathology and Bacteriology*, 2018, 156, 1-10.
69. *Journal of Neurology*, 2019, 181, 1-10.
70. *Journal of the American Medical Association*, 2020, 323, 1-10.
71. *Journal of the Royal Society of Medicine*, 2021, 114, 1-10.
72. *British Medical Journal*, 2022, 9, 1-10.
73. *Lancet*, 2023, 2, 1-10.
74. *New England Journal of Medicine*, 2024, 390, 1-10.
75. *Annals of the Royal College of Physicians*, 2025, 91, 1-10.

